

ANTZERTI



EVKALANBERTIAREN
ILEROKOAN

“ANTZERTI YAYAN IZAN NAZ...”

URKIAGA'tar EUSEBI'k idatzitako

— BAKARIZKETA (Gizonezkoentzat) —

XANKO TA PAXKO

(ELKARIZKETA) AROZENA'tar ANDONI'k idatzia.

49'gañen Zenbakia

V'gn. URTEA.

1936—IIbeltza

8 PESETA URTEKO.



JAKINGARIAK.

**Euskal-teatroa Bidasoz beste
aldetik**

“Antziña ilabetekaritik artuta onoko befi aukerak aldatzen ditugu gure irakurleak pozik jakingo dituztelakoan.

“Ez degu kasik ilabeterik jigarotzen nun ez degun andik eta emendik befia izaten munbaiteko gizon gaztek edo anderek euskerazko komedia zerbait eman dutela edo berderen eskuarazko beste jostaketa zerbait.

Atafatze'n “Begiraleak” ikusgafi bat txarmanta eskafi diote beren efitafei toki-ko kantuz bezin eder batzuekin.

Donibane-Loitzuneko lanak ezagunak zaizkigu. “*Gure Etxean*” zer ez dute asmatzen?

“*Alegera*” esaten dioten bilkuran ere ematen dituzte euskerazko kantuz eta komedi politikak.

Lañesoro'n ez dira beste-

tan bañõ gibelago.

Urte befiari buruz neska-
txek eman dute danok daki-
gun “*Egiazko euskaldunak*”
deritzan ikusgafia. Eta zein
ontza! Oja, ola gazteak, zuen
gurasoen ufatzei jafai zuzen
zuzenik.

Ezpeleta'n, atsegiñez ja-
kin degu sortefiko mintzai-
rari egiten diotela onore be-
ren komedietan. Ori gauza
edefa eta beafa. Jafai bide
ortan.

Uztaritz'en ere biziki eka-
fiak dira mutikoak, segurik,
euskerazko gauzai. Ez da be-
raz afitzeko orain gertatzen
duten ikusgafian ere euske-
razko zerbait ezafiko bai-
dute.

Donibane Garatzi'n ilbel-
tzaren amabian ezin politikia-
go ari izan dira: “*Martze-
lina'ren Erumatismak*” an-
tzezturik. Iñak egin dituzte
baztafetan!

Hazparne'tzaz zer esan-
go degu? Nere ustez Haz-
parne'n eta Sempere'n asi

ziran lenengo orain toki guzietara zabaltzen ari diran euskerazko jostagaiñuak. Egun auetan ere bi komedi eman dituzte biziki politak. Orobat Kanbo ta Lasa'n. Ez ditugu emen izen guziak áitatzzen, zeren ez ditugun guziak ezagutzen.

Zer nai dela zorionak guziol.

Pelo Karkasa.

TAKA-TAKA

Bermeo'ko eñian "*Taka-Taka*" deritzan antzezleri talde bat sortu da. Ederto mutilak! "*Taka-Taka*" izen ofek efiz-efi ibiltzeko asmoz zatoztela adierazi nalko du. Ea, bada, astiro-astiro asita urútiraño zoazten. Itxastafak antzerti lanerako kemena ta gatza ba-dituzute ta ezin izan motel. Emendik aufera ere zuen beñi ematea atsegin izango zaigu.

Anitz urtez!

"El pueblo del año"

Dr. Atxika-Alende'ren "*El pueblo del año*" antzerki beñia Bermeo'n Ilbeltza'ren 25'n lenengo aldiz antzeztu dute.

Euskeraz eta erderaz tajutua omen dago.

Añera txalogafia egin omen zioten paperak diotenez, eta bai ikusleen gogoak ase ere. Beraz, beste lan beñi bat badegu. Lenbaitlen argitaratua ikusi dezagula. Zorionak Dr. Atxika-Alende idazle jakintsuari.

- Andre Joxepa Tronpeta -

Askok galdegin izan digute, ea, Alzaga'k sortutako lanik ederenetarikoa dan "*Andra Joxepa Tronpeta*" nolz argitaratu bear genduen. Bada, adiskideak oren txanda ere eldu da. *Antzerti*'n leku emateko luzetxoa edo zan; eta gañera jantzi, edergalu ta eresla dituana. Onek atzeratzen ginuzen. Bañan, azkenik "*Yakintza*" aldizkiriak bere gain artu du arlo orl ta laister puskaka argitaratzen asiko da. Iru edo lau emanalditan "*Andre Joxepa Tronpeta*" osatu al izango du.

Ez esan gero antzerkiz aberasten ez goazenik.

Antzezleri talde gudu.

Igandero, Donostia'ko Pox-



“Antzerti=yayan

izan naz...”

URKIAGA'tar EUSEBI'k idatzitako
BAKARIZKETA
(Gizonezkoarentzat)



1936—TOLOSA'n

I. LOPEZ MENDIZABAL'encan

“ANTZERTI-YAYAN IZAN NAZ...”

BAKARIZKETA

(Gizonezkoarentzat)

ANTZEZ-NOTINA: Leodegari, befogeltamar urteko mutil zaar, lodi samafa, alaiberaa ta ona, baita zerbait malmutza bere. Polito yantzia.

IRUDITEGIA: Txaki bat, erdian maitxua, ganean lorontzi bat dauala. Baranuan, bost-sel aulki. Ate bi ala fru.

Ostatu-iskiko. txakia da. Ostatu onetan bizi da Leodegari.

ALDIA: Gaba da. Amabiak yoko dabe.

Leodegari.—(*Atzeko atetik agertu bedi*) Jaunok, jaunok! (*Arnatsputzka*) Antzerki yayan izan naiz... Teatroa ikustera...

Ta sekulakoan aspertu eragin dauste, ez an agertokian jardun dabenak, ikusi eta entzun egitea baño beste zeregiñik izan eztabenak baizik.

Ai, aek bai ikusleak! Ba-dakizue, gure efi au lako efi-txoetan zelako publikoa izan oi dan. Baña niri iguin emoten dauste onelangoak. Naskagati iataz.

Niri? (*Bate-karkaxa egifiaz eta alai jafiaz*) Ja, ja, ja! Niri!.. Baña ofeik eztakie ni nor naizen. Ai, ba'lekie jakin...!

Ni ikusten nabenetan “or doia mutil zaafa” esan oi dabe, ifi-bafe egifiaz. Niri ostera, bost ardura!..

Ostatu onetantxe bizi naz ni. Jan, edorto egiten dot; lo, ez ainbat txartoago. Jantzi bere, (*Bere soñari begiratuaz*) ez itxusi. Ba-dakit nik, nire antzera, askotxuk jantzi nai izango leukiena.

Ta dirua?... Oi, dirua! (*Ezketeko begiari keñu eragiñaz*) Eztago dirua bezelako apaingatirik. Nire sakeletan ogerleko bat, bi, iru... beti utsik egin bage. Nire sakeleko soñua baño oberik eztago egon bere.

Alpefik esango dabe birigafioak eta kardantxiloak eta ufetxindofak ederto abestuten dabela. Eztago diruaren “txin-txiña” lango ufetxindor kantaririk!

Ondotxo daki jakin auzoko Gergore'k. Ai, alako neska-

tila edefik ezta gure etxean sortu! (*Entzuleai*): Ta zuek, ni lango mutil-zaar bat ogetabost urtek “kabeliña” txairoaren albistak esaten asi dalako bafe egingo ete dozue, ba?

Egin bafe, nai ba’dozue, baña egia da. Bai, bai, bai! Lengo baten ba-niñoian kale-zear, eta ifizko eztul bigun gozo bat entzun neban ,..eta etxeko atetan (*atadian*) Gergore edefa neuri iti-bafeka gozo-gozo, eneban ikusi, ba?..

(*Biotz-ukituz*) Ta aren begiak... ai...! Eztiaz egiñiko kandelaxi ixiotuaq zirudien. Aen dirdira, ta aen samurtasuna! une aretan, osterax, erlearen eztenkada zofotzaren miña artu neban biotzaren erdian.

Begirakune lotsabaga bat egin, bafe-kirkira zaratatsua yaurti, eta bizkor aldendu zan ene begien aufetik Gergore zoraqafia!

Afezkerore, ai! (*Zinkurin egiñaz*) Lafi dago mutil zaafaren biotza. (*Biotzari oratu nairik*)

Ut, ut, ut ortatik! Ni enaz itzal eta erostaka bizitekoa, ez! (*Bafiren bafi alaituaz*) Ni... ondo bizi naz.

Gaur bere, aparitxua ederto jan ondoren akeitetxera joan naiz, “kafetxua” ta abar artzera. Txokor eder bat ezpañetan jafi, ixetu eta iruzpalau bidar txurgatu eta keia dario-la ipiñi dodanean. (*Txalo bi jo begiz*), txalo bi jo ditut eta “Iñese!” didar egin dot.

Nire esku-zarta otsetara an agertu da panpoxa Iñese, akeitetxeko neskatilea. “Ia. Iñese polit ori, zofak zuritu bear ditut” esan dautsat ogerlekoa emonaz.

Ta berak (*Emakume mintzoz*): “Eztakit polita nazan, baña, zeu bai, ba-zara edefa bere”...

Nik orduan egin dodan bafe-algarea andia izan da, antza, inguruko guztiak neuri begi-begira jafi eta maxiatzen asi dira-ta.

“I, Leodegari, (onelaxen da, ba, nire izena), oraintxe bere, neskatxekin diarduk, maxiatzale beti-gazte ofek!”—oyu egin daust ezagun batek.

“Oraindaño bere ofetan, Leodegari?—ots egin dau an bazter baten erdi-lo egon, agure zimelak.

Eta nik orduan (*Ziñuak egiñaz*) afo-afu jafiaz, onelan esan eta yaulki dautsat: “Zer bada, eu bezela or zokondoan sartuta egon? Emen naukak eu baizen bizkorago ta dotoretxuago. Ezkongei, gaztegin... eta... burugin.

An izan da izateko bafe-pufutzada! Iru edo lau sabelari eldu (*Pariztak egiñaz*) eta eztandu egin beafean ikusi ditut. Beste aldean gizon-gizen batek jaurti dauan karkara ozenaz eta egin dauan zirkinkadeaz aulkiaari krak! eragin...

eta an yoiak eperdiz gora gizon biribila!

Eztozue iñoiz alako komerik ikusi. Baldin apariak on egingo ba'dautsa, edarietxeko nagusiak, mesedez, isilduteko eskatu daust, eta geienak bafeari ezin eutsirik laga, eta etxalderantz egin dodanean, agure zimelak pozez didar egin daust:

—“Urte on askotan, Leodegari. Aspaldion etxuat onenbeste baferik egin. Eskefik asko”, eta au esan bitartean bere aboko agin bakar luze zofotza agiri izan dau...

Baña, onezkero, belu izango da. Lotara bere, juan bear neuke-ta... Ze ordu ete da?

Esan bear neutzueña baña, eztot esan, eta agindua zofa izan. Teatruko kontuak esaten asi nayatzue, eta aztuegin yat. Ai, nire burua! ...Kanpa-tofe-zaafean lo dagoan orduariaren antzean dabil, ufean...!

Joan naz, ba, antzokira, eta txartela erosi ta naz. Antzokia beterik zegoan. Amaika lotsabaga ba-da munduan! Neure iartokian iñor eztot aurkitu ba? Andra txipristin bat nasai-nasai neure aulkian! Zelan edo alan, betondo galantaz, bialdu dot neure lekutik.

Ofa ba. Ainbeste lanen ondoren, neure aulkian patxadaz yezafi, ta alangoren baten jaso dabe zapia, teloia.

Zapia jaso afen, jentea befiketan. Iruditegian alako txerpolari bat agertu danean, asi dira bafeka, eta ezer entzun ezin nik. Noizbait bere, zerbait isildu dira. Baña antzezleriak zerbait bafegafia egin orduko, bafiro bere, guztiak bafe-algaraka.

Zer bafegafia gero? “Drama” ituna garai negargafienera eldu danean bere, bafeka eztira asi ba, batzuk?

Tiro-otsa entzun, eta bafe. “Neure semea erail dabe”— amak esan... eta entzuleak bafe. Aita, biotzeko mifiaren erasoaz, lufera yausi, eta bafe!...

Danari bafe, eta edozeri bafe. Txor-txor-txor andik, mur-mur-mur emendik. Kir-kir-kir batetik, eta beste zarata geiago bere bai beste nunbaitetik. Alako iskanbilik! Ango zapafadarik!

Oi! eta kolejioetan edukaziñoia arturiko (?) señoritak, andereñoak, norbait agertu orduko befiketan, besteak au edo ori yasean egin eztaualako ji-ji-ji... Burua bere, nastua cragin dauste. Ia ezer bere entzututen utzi ez. Eta noiz onenean, ezer ulertu bage gelditu...!

Onelangoak etxean gelditu bear lirake, ta ez iñori kalte egitera joan antzokira. (Amabiak jotzen dabe tofean astiro) Zuek, bere, entzuleok, albokoari ondo entzututen galazotera

eziñien etofiko, ezta?

Ni, bere, enaz etofi ba, zuei aspertu eragitera. Beraz ga-
bon jaun eta andreok. Ondo lo-egin.

Z A P I A .



Xanko ta Paxko

(Elkarizketa)

AROTZENA'tar ANDONI'k idatzia.



1936 - TOLOSA'n
J. LOPEZ MENDIZABAL'enean

XANKO TA PAXKO

(Elkafizketa)

Onoko au "CLOWN" arteko elkafizketa dalarik, jatzera ta izkera ofelakoal dagokiena izango da: pafagafia.

ANTZEZTOKIA: Ezer berezirik ez du bear.

ANTZEZLAGUNAK: Mutiko naiz lafiak, edozein urtedun gizasc-mezko izan ditezke.

- Xanko —(*Mafu ta ofuka, txingoka sartu bedi anka mutur bat esku artean duala. A...i...o...!* (*Antzeztokian batetik bestera gero ta mafu aundigoak egin bitza*)
- Paxko —(*Xanko'ri iseka*) um...a...o...!
- Xanko —(*Paxkori erantzunaz algaraz*) Ja, ja... ja...
- Paxko —(*Len Xanko bezela anka mutufa esku artean artuta, iseka*) Ja, ja...
- Xanko —(*Len bezela anka mutufa esku artean artuta, mafuaz*)
Ai... o...!
- Paxko —Baña gizona, zer gertatzen zaik...?
- Xanko —(*Mafuaz jafaitu*)
- Paxko —Etxekoren bat gaxo al daukak?
- Xanko —Ez ori baño okefago... Ai...! o...!
- Paxko —Il egin al da ba...?
- Xanko —Ez, ez... ai...o...! ori baño okefago...
- Paxko —Zerbait galdu al zaik...?
- Xanko —Ezta; okefago, okefago...
- Paxko —Ze atate dek ba!

- Xanko —A... um... a... atepak... atepak... um... o...
- Paxko —Ateak zer...?
- Xanko —Ateak... atepak... um... o... atepak... eskuko... eskuko... biatzak afapatu dizkitela... ai...! o...!
- Paxko —Ateak eskuko biatzak afapatu dizkikela...?
- Xanko —Bai, atepak... bai...
- Paxko —O... ori ez dek ezer mutil! Oso etez kentzen diat nik ori. Ekatzak esku ori. (*Anka mutua artzen asi baña Xanko'k ematen dion eskua artu ezpañetara eraman, aize eman eta utzi*) Oiatx, sendatua zio! Miñik ematen al dik orain?
- Xanko —(*Batetik bestera bildufez bezela anka puntean ibiliaz alai*) Bai ederki sendatu nakela!
- Paxko —Nik ofelako sendagaiak nere adiskide onenentzat bakafik gordetzen dizkiat.
- Xanko —Eta i nere adiskide onenetakoa aiz.
- Paxko —Bai ba. Eta ik zer bear dek emen?
- Xanko —Nik...?
- Paxko —Ik bai. Nork deitu dik onera?
- Xanko —Alde ortatik eztiat ondo entzuten.
- Paxko —(*Beste aldetik belafi ondoan deadarka*) Zertara etofi aizen onera?
- Xanko —Eta i zertara etofi aiz, zer bear dek emen?, nork deitu dik onera?
- Paxko —Neri?
- Xanko —Iri bai?
- Paxko —Iñork ez.
- Xanko —Orduan i ta ni ta ni ta i berdin-berdin gatxeudek.
- Paxko —(*Ateruntz*) Bo, bo... i betiko kaxkalu. Baniak eta or konpon adi nai dekan bezela. (*Atera*)
- Xanko —Agur, agur; ondo jun eta i ni baño len iltzen ba-aiz abixatu akiak entiefua noiz dan eta ondo banaiz eta denborik baldin badet eta gogoratzie aztutzen ezpazait agian jungo nauk. (*Bat batean ateruntz jun eta Paxko jun dan aldera ojuka*) Paxko, Paxko...! Ator, ator... (*Paxko txamafetik tiraka sartzen du*)
- Xanko —Bai aldakik zertara etofi naizen onera?
- Paxko —Ez.
- Xanko —Ez aldakik nork deitu didan onera?
- Paxko —Ez.
- Xanko —Ik ez aldakik? Nik ere ez. Ja, ja, ja...!
- Paxko —(*Asafe*) Ire pafagati nagola uste al'dek? Belafondoko bat ematen ezpadiat eskua ez zikintzeagatik dek. (*Ateruntz*) Kaiku, arlote iñozu...

- Xanko —Ja, ja, ja... (*Paxko'ri txamafetik elduaz*) Ez uala motel, nere adiskide onena aizela esan eztiat ba oraintxe?
- Paxko —Adiskide bai baña ire pafagafi egoteko enitxiokan egin nere amak!
- Xanko —Ara Paxko, jaten ez detanean pafegiteko gogoa sartzen zaidak gosea aztutzeko. Gaur mokarurik eztiat ikusi ere ta... badakike pafegin bear bafengo kufun-kufunkak aztutzeko...
- Paxko —Pafegin bear badek egiok ba amonari nai badek!
- Xanko —Ez adi asefatu Paxko. Orain esango diat guzia: zertara etofin nauk nork deitu didan eta guzi-guzia. Entzun zak: (*Txamafaren patrikatik idazti bat atereaz irakurtzen*) "Agur Xanko; Biar... (*Paxko'ri*) Idazki au atzo egiña zeok e..?"
- Paxko —Bai bai, jo zak aufera.
- Xanko —"Biar (*Antzokiaren izena*) 'n jai aundi bat egin bear degu ta zu bear-beafeko zaitugu."
- Paxko —Aizak Xanko: nik irakurtzen bazekiat gero!
- Xanko —Nik ere bail Eta zer...?
- Paxko —Paper ortan eztula ik esan dekanik jartzen...
- Xanko —(*Idazkiari begiratuaz*) Afazoi dek!. Bestean jartzen dik. (*Beste patrikatik idazki befi bat atereaz*) Emen, ementxe jartzen dik... *Paxko'ri erakutsiaz*: Ara... ementxe... ikusten aldeko orain...
- Paxko —Azpikoz gora dagola ikusten diat...
- Xanko (*Idazkia jiriaz*) Bai baña ori dek gutxina. Ara ementxe jartzen dik. Zera... nun giñan ba...? "...ta zu... ta zu... bear beafeko zaitugu. Jai ondorenean apari edefa izango da ta ofetzaz gañera..." Ofetzaz gañera eztiat ezer nail Apari batekin aski diat. Apari ona, ori bai: eper, bixigu, langosta, angula, olasko, arkume, txefiki, kokotxak.....
- Paxko —Besterik ez..?
- Xanko —Ori asteko; gero gañerakoak. Zer egingo dek ba? Egunero iru edo lau aldiz platera zikintzen ibili? Utikan! Bein ondo jan eta kaxo motel! beste bat arte.
- Paxko —Ori dek, bafenen armiarma sareak egin arte.
- Xanko —Or nunbait! Aizak, aizak, i... i... pizkofa aiz noski, e?
- Paxko —Pixka bat.
- Xanko —Buru argia, e..?
- Paxko —Zerbait bai.
- Xanko —Orain ikusiko diagu ba. Ik bai aldakit armiarmak zergatik egiten dituzten sareak?
- Paxko —Armiarma sareak zergatik egiten diran..?
- Xanko —Bai, orixe..!
- Paxko —Ba... ba...

- Xanko —Ba... bai... armiarma sareak zergatik egiten dituzten! ja, ja... ezetz asmatu...?
- Paxko —Ba... ba... etzekiat.
- Xanko —Ez aldakit! Orain erakutsiko diat. Armiarmak sarea egiten ditek... arpa nun jo izateagatik!! ja, ja... ja...
- Paxko —Eta nik eskuak dizkit astakerik esaten dituanari bi belafondoko emateko. To! (*Masaleko bat ematen dio baña min artu dualako kafaxika*) Otx, otx... zer daukak or motel?
- Xanko —(*Algaraz*) Ja, ja... jo zak jo, zer dirala uste dek ik, astean bein jaten dutenen ezufak!!
- Paxko —Otx, gogofa zio! beintzat!
- Xanko —Tira Paxko, barkatzen diat eta ori aztutzeko entzuk zak au.
- Paxko —Zer dek....? Lengoaren antzeko astakeriren bat bota bear al dek?
- Xanko —Ez aundígoa.
- Paxko —Orduan baniak. Ez niok ire astakeriak entzuteko.
- Xanko —Ez, ez; ez dek astakeria. Bai aldakit kamiñeroak...? zera... kamiñeroak... zera dituk... kamiyoak konpontzeko dauden txapelgofi oek...
- Paxko —Bai, bazekiat...
- Xanko —Ba kamiñero oentzat bai aldakit zein izki, zein letra dan txafena?
- Paxko —Ajola zaiek kamiñeroai izki guzik kenduta erel
- Xanko —Ez, ez. Bat bakafa kendu nai litekek.
- Paxko —Bat?
- Xanko —Bat, bai, bat bakafa.
- Paxko —Eta bat ori zergatik, eta zein izki, zein letra da?
- Xanko —Ara: Ik badakit noski, askotan ikusiko ukan kamiñeroa baztafean...
- Paxko —Kamiñeroa baztafean...? Bai makíña bat aldiz!
- Xanko —Ez, ez. Kamiñeruak bide bastefean edukitzen duten txapa bat, letrero bat. "Peon kaminero" jartzen dun letrero bat...?
- Paxko —A... bai.
- Xanko —Ba kamiñeroak itz oetako izki bat, letra bat kendu nai litekek.
- Paxko —Zein ordeá?
- Xanko —P.
- Paxko —P.....?
- Xanko —P, bai. "Peon kaminero" jartzen dun ortan P kendu ezkeró "Eon kaminero" jafiko bai luke ta... ja, ja...
- Paxko —Etziok ain gaizki...
- Xanko —Kamiñeroak bai ez lirakela gaizki egongo P kendu ezkeró.
- Paxko —Tira Xanko, onuzkeró berandu det eta baniak. Bai aldakit

- zein ordu dan?
- Xanko —Nik bai.
- Paxko —Zein ordu dan esango al diaken galdetzen diat.
- Xanko —Itzeginzak ba bear bezela. (*Esnale edo Despertadore bat atereaz*) Afatsaldeko zazpirak bost gutxi.
- Paxko —Zazpiretako "Muxkulunean", egoteko itza emana zeukat eta baniak.
- Xanko —Ez; ez aiz jungo.
- Paxko —Itza emana zeukat eta bear-beafeko diat juatea.
- Xanko —Ez; gaur neri lagundu bear diak. Eta ondo laguntzen badiak, (*Txanpon bat erakutziaz*) au iretzat. .
- Paxko —Ontzako ufea!
- Xanko —Ontzako ufea bai.
- Paxko —Itza emana neukatxean bañan i nere adiskide onena aiz eta...
- Xanko —Orain ba jendearen aufera ateratzen geranerako saioak egin bear dizkiagu. Ara: I erde-erdian jafiko aiz eta izango aiz.... zer izango nai dek?
- Paxko —Ik nai dekana.
- Xango —Ba i izango aiz... izango aiz... astoa izango aiz!
- Paxko —Ni astoa....?
- Xanko —Txantxetan ordea...!
- Paxko —Ezta txantxetan erel Tol (*Masaleko bat ematen asten da baña eskua masail ondoan dula gelditzen da*)
- Xanko —Ja, ja... jo zak bildufik gabel!
- Paxko —Astua !!
- Xanko —Ni astua....?
- Paxko —I bai. Lau ankekoa gañera !! Astua !!
To ba. (*Belafondoko bat ematen asten da baña eskua masail ondoan dula gelditzen da*) Belafondoko bat ematen ezpadiat eskua ez zikintzeagatik dek.
- Paxko —Zazpirak dituk eta baniak.
- Xanko —Eta ontzako ufea?
- Paxko —Eztiat ezer nai.
- Xanko —Tira, tira Paxko, i nere adiskide onena aiz eta ekatzak bosteko ori. (*Biak eskuak elkartzen dituzte*)
- Paxko —Egintzak ba azkar egin bear dekana eta goazemak emendik.
- Xanko —Ia ba zer egingo diagun. I izango aiz...
- Paxko —Ik nai dekana baña astoa ez...
- Xanko —Ez, ez; astoa ez. I izango aiz... gofa izango aiz!
- Paxko —Gofa...?
- Xanko —Bai. I gofa ta ni mutua. Oiala jasotzerakoan i lasa-lasai exerita azalduko aiz. Andik laxter zintzafia joko dik eta atia iri-kiko dek... eta ni...

- Paxko —Aizak, aizak, baña gofa ba'naiz..... (*Ontan zintzafi, soñua entzuten da*) To, ofa zintzafi soñua.....
- Xanko —Ori... oiala jaso baño len jotzen duten zintzafia izango dek... eta goazemak gure zai egon ez ditezen.
- Paxko —Saio geio gabe....?
- Xanko —Asmatuko diat nik guzia...
- Paxko —Ez aztu gero mutua aizela.....
- Xanko —Eta i gofa... (*Bigafen aldiz zintzafia*)
- Paxko —Bai, bai, ara: eztiat zintzafirik entzuten.
- Yanko —Ori dek afazoa! Eutzi ofi. I gofa ta ni mutu. A zer nolako pafak egiñarazi beaz dituzten gaur *Paxko* ta *Xanko'k*.

Z A P I A

poliñe'n Antzokian, taldeak agertzen ari dira. Andoaindakak "*Sutan Biotza*" Vallejos eta Iruretagoyena jaunen mi-xio-antzerkia antzeztu dute.

Damurik, aurten auteskundu-gudua dala-ta ez digu utzi antzerti lanerako bear aña lasatasun.

— IIg. Bertsolari eguna. —

Ilbeltzaren 19'an aunditasun aundiz jaitu zan Donostia'n Ilgn. Bertsolari eguna. "Victoria Eugenia" jendez gañezka zegola egin zan leia-keta. Jaialdi zoragari ta edera benetan, guziok illiraturik utzi zituana. "*Txifita*" bertsolari zaara atera zan txapeldun; eta bigafen eta irugafen sariak "*Uztapide*" ta "*Zepa*" bertsolari gazteenzat izan ziran.

Bertsolariak, erdi txerpolari bai-ditugu, ta euskeraren alde egiten duten lanagatik emen aitatzea bidezkoa zan.

— Isilik egotea —

Jendeari, teatro jarduna ari danean isilik egotea erakutsi bear zaio. Ez da gauza gogaikariagorik otsa ta so-

ñua ateratzea baño; batzuen eta besteen sartu irteerak; eserlekuen arastakadak; elkafekiko beritsukeri ta maxia-ketak. Oregatik emen argitaratzen degun: "*Antzertiyayon izan naz...*" bakafizketa oso egoki dator. Gai ontaz zirikada} zofotz oiek sartzen ditu: «Zapia jašo afen jentea bafiketan. Iruditegian alako txerpolari, bat agertu danean asi dira bafeka ta ezer entzun ezin. "Drama" ituna garai negargafienera eldu danean bere, bafeka ez dira asi bada batzuek?... Oi! eta kolejoietan edukazioa arturiko, señoritak, andereñoak, norbait agertu orduko bafiketan... Kir-kir-kir, batetik, jiji-jj bestetik. Burua bere nastua eragin dauste. Ea ezer bere entzuten utziaz. Onelangoak etxean gelditu bear lirake ta ez iñori kalte egi-tera joan antzokira».

Aufak eta umeak zaindu bear dira. Ez bakafik utzi, ta gutxiago aurre-aldeko alkietan, bada, onela, gañerako jendeari ondo ikusi ta entzuten eragozten die. Bada-kizute irakurleak: Pafegitea ondo dago, bañan, guziok entzun dezaten tartean isil-isilik ikasi zazute.

Askoz ohea da "*programa*" bat besterik ez gertutzea, bañan au ondo, zeatz eta ederki ikasi ta antzeztua.

Antzekizun ona nun nai bi edo lau aldiz eman diteke; erdipurdikoak befiz bein ikusita aspertzen du.

Gañera lan eta asti gutxiago galtzen da ta ondorengoak dira askozaz obeak.

ANTZERTI'k argitara emandako

Antzerki-lanen erenkada

Zenb. - Pla.

"Aterako Gera", Toribio Alzaga'ren egintza bakafeko jostirudia	1-1,25
"Lafo ta Izar", Lizardi'tar Xabier'en ipui antzezgarria . . .	2
"Maya", Labayen A'ren "Ballet" antzekoa	2 } 1,75
"Gutzik Gaxo", X'ek erderatik antolatutako bakafizketa . . .	2-3
"Mateo Txistu", Labayen A'ren antzerkia ekitaldi bakafcan	4-1,25
"Bi Atzapak", Lizardi'tar Xabier'ek pantzeratik antolatua ekitaldi bitan	5-6 -1,75
"Patxiko ta Martintxo", Ume elkafizketa	7
"Zebatean sagatak?", Nazabal J'ek Lope de Rueda'ren "Las Aceitunas" euskeratua	7 } 1,25
"Euskel Dantzak", Orkalztegi'tar P. A.'ren jolasketa	7
"Arantza", Arostegi'tar P'ren bi ekitalditan antzerkia	8-9 -1,75
"Zanpantzar", Alzaga Toribio'ren jostalu pargilea (farsa)	10 -1,25
"Seaska-Abestia", Martinez Siera'ren "Canción de Cuna"tik Lopez Mendizabal I'ek euskeratua	11-12 -1,75
"Goimailasuna" Kardaberaztafak emakumezkoentzat eratutako antzerkitxoa ekitaldi batean	13-1,25
"Eglazko Argia" (Azken-gudako gertakaria) Piarres Itufalde'k lau ekitalditan moldatua	14-15-1,75
"Ustegabeko Poza", Amonafiz'tar A'ek tajutua (ekitaldi bat)	16-1,25
"Ipafigire", Labayen'dar Andoni. Bi ekitaldi ta azken zati edo epilogo dun antzerkia	17-18 1,75
"Poxpolin Gotia", Markiegi I'ek euskeratutako antzerkitxoa	19
"Andregata nal ta...", Arozena'tar A.'k idatzitako bakafizketa.	19 } 1,25
"Antigone", Sopokel'dik Zaitegi'tar J.'k euskeratua	20-21 -1,75
"Eskaleak", D. Manresa ren "Los Mendigos"etik euskeratua	22-1,25
"Urteufena", Arozena'tar Andoni'ren bakafizketa	23-24
"Txokolo txeki tratatari", Kafaskedo O.'tar I.'ren bakafizketa	23-24 } 1,75
"Etxe-aldaketa", " " ekitaldi bateko antzerkia	25-1,25
"Itufan", Amonafiz'tar A.'en Emakumezkoentzat antzerkia bi ekitalditan	26 -1,25
"Aralar mendian", Urkia Fernando. Ekitaldi bateko antzerkia gizonezkoentzat	27 -1,25
"Osaba", Toribio Alzaga'k iru ekitalditan idatzitako antzerkia	28 } 2,25
"Berezi", A. Labayen'ek parantzeratik euskeratutako elkafizketa	29
"Iti-Itzaldia", " " itzulltako bakafizketa	30 } 1,25
"Neskamearen marmafak", Luzear'ek idatzitako bakafizketa	31
"Mirentxu", Alfredo Etxabe'k sortu ta Zubinendi'tar Joseba'k euskeraturiko bi ekitalditan eresantzerkia	31 } 1,25
"Gogo-Oñazeak", Mujika'tar Tene'ren iru ekitaldiko antzerkia	32-33 -1,75
"Mox, Miss, Xapi", Arotzena'tar Andoni'ren ekitaldi bakafeko antzerkia	34-35-36 -2,25
"Balujan", " " bakafizketa	37 } 1,25
"Erlotz-bide" Paul Humpert, O. M. I.'ren iru ekitaldiko antzerkia	38-39 -1,75
"Gal dagonaren Indara" Bariola ta Aizpurua'tar Abelin'en jostirudia ekitaldi batean	40 1,25
"Eun Dukat" Lekuona Anaien bi ekitalditako antzerkia	41-42 1,75
"Gizon Bizarpeituli eta Emazte Bizartsuli" A. Labayen'en bi ekitaldiko jostirudia	43 -1,25

" <i>Elezatzoko Ardazlea</i> " E Gorostidi ta Agifetxe'en bi ekitaldiko ta azken zati dun antzerkia.	44-45	1,75
" <i>Gabon</i> " Muxika'tar Tene'ren umientzako antzerkitxoa.	46	} 1,25
" <i>Klotz Oneko Neskatala</i> " Amonafiz'tar Ander'en umientzako antzerkitxoa	46	
" <i>Garo-usala</i> " Kafuskedo Olafa'tar Jakinda'ren iru ekitaldiko antzerkia	47 - 48	1,75
" <i>Antzerri yayan izan naz</i> " Urkiaga'tar Eusebi'k idatzitako bakafizketa	49	} 1,25
" <i>Xanko ta Paxko</i> " Arozena'tar Andoni k idatzitako elkafizketa	49	

